2. Plan Bereziaren muga irudikatzeko marra eten urdinak erabili dira. Horien helburua grafikoki araudi honen aplikazio-eremua egiaz mugatzea da.

2. ART. HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN DOKUMENTAZIOA

1. Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau honako dokumentuek osatzen dute:

A dokumentua: informazio- eta justifikazio-txostena

B dokumentua: Arau Subsidiarioak garatzeko arau urbanistikoak

C dokumentua: gauzatzeko antolaketa- eta kudeaketa-gidalerroak

D dokumentua: bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren ikerketa

E dokumentua: dokumentazio grafikoa

- I.1. Hiri-lurzoraren eta lurzoru urbanizagarriaren kalifikazio orokorra
- I.2. Araudia, kalifikazioa eta antolamendu xehatua
- I.3. 2. BEPB-ren muga. Egungo egoera
- I.4a Eremuaren informazioa. Hasierako finkak
- I.4b Eremuaren informazioa. Oraingo eraikuntzak
- I.4c Eremuaren informazioa. Oraingo azpiegiturak
- I.4d Eremuaren informazioa. Oraingo azpiegiturak

- O.1. Irudi-planoa. Ez-loteslea
- O.2. Antolamendu xehatuaren planoak. Erabilerak
- O.3. Antolamendu xehatuaren planoak. Lerrokadurak eta sestrak
- O.4. Sekzioen planoak

3. ART. ARAUTZEKO DOKUMENTUAK

1. Dokumentu arautzaileak dira, bai ordenantza hauek (B dokumentua), bai hurrengo antolamendu-planoak.

- O.2. Antolamendu xehatuaren planoak. Erabilerak
- O.3. Antolamendu xehatuaren planoak. Lerrokadurak eta sestrak

2. Gainerako idatzizko dokumentazioa (A, C eta D dokumentuak) eta dokumentazio grafikoa (informazio-planoak eta antolamendu-planoak) gutxi gorabeherakoak dira eta Araudiak xedatutakoarekin bat aplikatu behar dira.

4. ART. ARAUDIA INTERPRETATZEA

1. Eztabaida akats material argiarengatik sortzen denean izan ezik, Araudiaren eta antolamendu-plano arautzaileen artean kontraesanak Araudiaren alde ebatziko dira eta planoen artean O.2 eta O.3 nagusi izango dira. Akatsaren kasuan, Plan Bereziaren zehaztapen guztien interpretazio koordinatu eta koherentea nagusi izango da.

2. Edozein azaleraren dimentsioa adierazteko zenbakizko neurketari buruz, betiere egiazko azalera nagusi izango da, zehatz-mehatz egiaztatu ostean. Informatikoki sortutako marrazki-fitxategien laguntza izango da.

5. ART. ESPAZIO PUBLIKOEN DISEINUA INTERPRETATZEA

1.- Jabari publikoaren azpizonean diseinua gutxi gorabeherakoa da eta jabari publikoaren zonei dagokien diseinua definitzeko tresna Urbanizazio Proiektua izango da. Muga bakarra O.3 Planoan zehaztutako sestrak eta O.2 Planoan antolatutako erabilerak mantentzea izango da.

2. Ez da planeamenduaren aldaketatzat joko metro bateko tartean espazio publikoen sestrak moldatzea. Neurri hori gaindituz gero, Xehetasun Azterketa izapidetu beharko da.

II. KAPITULUA LURZORUAREN ARAUBIDE URBANISTIKOA – ESPAZIO PUBLIKOAREN URBANIZAZIOA

1. SEKZIOA LURZORUAREN KALIFIKAZIO XEHATUA

6. ART. KALIFIKAZIO XEHATUA. ZONEN ETA AZPIZONEN MOTAK

1.- Plan Bereziaren eremua modu xehatuan zonetan eta azpizonetan banatua dago eta horiek O.2 planoak 1/1000 planoan, “Antolamendu xehatua. Erabilerak” izenekoan, zehazten ditu.

2.- Zonak ondo definitu dira planeamendu orokorrean edo udalaz gaindiko planeamendua garatzeko, ondo erantsi zaizkio hiri-bilbeari. Azpizonek xehetasunez oso-osorik kalifikatzen dute eremua eta bi motatan banatzen dira: jabari publikoaren tokiko sistemen azpizonak eta eraikigarritasun urbanistikoa duten azpizonak.

7. ART. TREN-SISTEMA OROKORRAREN ZONA

1. “Tren Sistema Orokorraren” Zona bezala sartzen da Bilbo-Donostia zorupeko trenbidearen larrialdiko tunelak egun betetzen duen espazioa.

8. ART. JABARI PUBLIKOAREN TOKIKO SISTEMEN AZPIZONA

1.. Jabari publikoaren tokiko sistemen azpizonak Plan Berezi hau gauzatzen denean derrigorrezko lagapenaren bitartez lortuko dira. Durangoko Arau Subsidiarioen 1.3.8. artikuluan eta hurrengoetan arautuak daude eta honakoak dira:

Ibilgailu eta oinezkoentzako bideekin zerikusia duten azpizonak

Espazio libreen eta berdeguneen azpizona

Ekipo komunitarioaren azpizona

2. Berdeguneen azalera gutxienez legezko estandarra bermatzen duena izango da. Kasuak kasu, soberakoa 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 105.4. artikuluan xedatutakoaren arabera zenbat eta kudea daiteke.

9. ART. AZPIZONA PRIBATUA

1. Azpizona pribatuek Plan Berezi hau gauzatzen denean titulartasun pribatua mantenduko dute eta horietan planeamendu orokorrak emandako eraikigarritasun urbanistikoa gauzatuko da. Hurrengoak dira:

Erregimen orokorrean babes ofizialeko etxebizitzaren azpizona

Erregimen tasatuan babeseko etxebizitzaren azpizona

Etxebizitza librearen azpizona

2. SEKZIOA. PARTZELAZIOAK

10. ART. PLAN BEREZIAN DEFINITUTAKO PARTZELAK. PARTZELAZIOAREN AUKERA ETA HORI EGIN AHAL IZATEKO PROZEDURA

1. Areal zehaztutako partzelak **O.3. Planoa** "Antolamendu xehatua, lerrokadurak eta sestrak" izeneko antolamendu-planoan daude.

2. Eraikigarritasun urbanistikoa duten azpizonetan zehaztutako partzelak garajea batera duten eraikuntza-bolumenekin bat datoz. Plan Berezi honek antolatzen dituen eraikinetan zatitu ahal izango dira eta batera Durangoko Arau Subsidiarioek zehaztutako aparkalekuen estandarrak betetzen dituztela bermatuko dute.

3. Dokumentazio honetan definitutako partzelak hala aldatuz gero, ez da Plan Berezia aldatuko; horiek Birpartzelazio Proiektuan bertan egin daitezke.

4. Partzela beraren eraikinen artean sestraren gainean kokatutako lurzoru-tarteak erabilera publikoaren zorra ezarria du. Partzela osoaren Birpartzelazio Proiektuak edo Eraikuntza Proiektuak Plan Berezi honen zorra mugi dezake, 5 metroko tartean antolatzen bada. Ondorioz, zor-tartearekin muga egiten duen eraikinaren lerrokadurak tarte berean alda daitezke eta, horretarako, ez da Xehetasun Azterketarik izapidetu behar.

3. SEKZIOA. JARDUERA-MOTA ETA KUDEAKETAREN GARAPENA

11. ART. JARDUERA INTEGRATUA ETA JARDUERA URBANISTIKOAREN PROGRAMA -JUP

1. Eremu guztiak jarduera integratu bakarra osatzen du eta Urbanizatzeko Jarduera Programa bakarrean garatuko da. 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 152. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren bidez arautuko da.

4. SEKZIOA. URBANIZAZIO-PROIEKTUAK

12. ART. URBANIZAZIO-PROIEKTUEN EREMUA ETA EDUKIA

1. Urbanizazio Proiektua urbanizazio-elementu guztiak fisikoki zehazteko dokumentu tekniko integrala da. Zehaztapenek Durangoko Arau Subsidiarioek eta 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 194. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

2. HAPBren mugarekiko barruko edo kanpoko kokapena alde batera utzita, Urbanizazio Proiektuan eremua inguruko hiri-bilbearekin behar bezala lotzeko eta, zehatz-mehatz esanda, oraingo sareekin hiri-zerbitzu guztiak konektatzeko urbanizazio-obrak sartuko dira.

3.- Urbanizazio Proiektuak eremuaren toki ikusgaian eskultura bat sartuko du. Eskultura eta artista hautatu baino lehen Udalak onartu beharko du.

4.- Zaratari buruzko Legea garatzen duen 1367/2007 ED betetzeko, Urbanizazio Proiektuak eranskin bat izango du eremuan Ingurumen Zarataren lerketa Berezia lantzeko.

5.- Urbanizazio Proiektuaren edukitik kanpo gelditzen dira eraikigarritasun urbanistikoa duten azpizonetako partzelen barruan partikularrek egin behar dituzten urbanizazio-obra pribatuak. Erabilera publikoaren zorrokin zonen amaierak, berriz, definituak geldituko dira.

6. Arestian aipatu diren azpizona pribatuen urbanizazio-obrak Udalean Obra Osagarrien Proiektua edo Eraikuntzakoarekin baterako Proiektua aurkeztu eta onartu ondoren egingo dira.

13. ART. ZUHAITZAK

1. Espazio publikoetan orokorrean zuhaitzak jartzeko, lehentasunez, sustraiak sakonean zabaltzen dituzten eta, beraz, sestraren azpiko espazioa gutxienean menderatzeko joera duten espezieak erabiliko dira.

2. Urbanizazio-proiektuan erabilitako espezieak eta bakoitzeko zuhaitzen kopurua zehaztuko da. Legeak xedatutakoari jarraiki, etxebizitzako gutxienez zuhaitz edo zuhaixka ertain bat izango da.

3. Urbanizazio Proiektuak lorezaintza CO₂-ren igorpenak xurgatzeko orduan, eragin handiagoa duten zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak (magnoliak, zedroak, altzifreak, zumarrak edo akaziak eta gogortxuak ala mitreak) landatzera bideratuko du, beste landare-mota apaingarriago batzuk alde batera utzi gabe.

III. KAPITULUA ERAIKUNTZA-ARAUAK

1. SEKZIOA HERRI-BIDEARI DAGOKIONEZ OBREN BALDINTZA TEKNIKOAK

14. ART. GARAJEETARA SARTZEKO ARRAPALADAK

1. Sotoan eta erdisotoan garajeetara sartzeko arrapaladak, kanpokoak badira, betiere eraikuntza-partzela pribatu librearen barruan hasiko dira eta hesi edo horma batek mugatuko ditu. Azkenekoaren altuera kanpoko sestratik 1,10 m-koa edo hortik gorakoa izango da. Ildo horri jarraiki, oinezkoak lurzoru publikotik edo pribatutik erortzen badira, betiere segurtasuna bermatuko da.

2. Antolamendu-planoan markatutako garaje-sarrerak gutxi gorabeherakoak dira eta esleipendunek eskatuta, Urbanizazio edota Eraikuntza Proiektuan alda daitezke. Sarrerak erabilera publikoaren zorra duten azaleraren gainean kokatzen badira, azalera lehen arrapaladak betetzen zuen egoerara mugituko da.

2. SEKZIOA ERAIKUNTZA ETA BOLUMENARI DAGOKIONEZ ZONA GUZTIEKIKO BALDINTZA ERKIDEAK

15. ART. ERAIKUNTZA DISEINATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. Eraikigarritasun urbanistikoa kokatzen den partzeletan planta berriko eraikin guztiek aplikagarriak zaizkien alderdi guztietan Durangoko Arau Subsidiarioek eta "Eraikinak eta bulegoak eraikitzean ingurumena hobetzeko ordenantzak" xedatutakoa beteko dute, Garapenerako Arau Urbanistiko hauek hurrengo artikuluetan adierazten dituzten ñabardurekin.

2. Etxebizitzak hartuko dituzten eraikinek babes publikoaren erregimenen bat behar badute, gainera, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Diseinuari buruzko Araudiari erreparatuko diote. Araudia arloan eskumena duen administrazio-organoak zehaztu du.

16. ART. ERAIKUNTZA-MODUA DEFINITZEA

1. Plan Berezi honen antolamendu xehatuak etorkizuneko eraikinen forma eta kokapena definitzen ditu. Izan ere, horiek egin ahal izango dira partzela desberdinetan. Lerrokadurekiko eraikuntza-lerroak definitzen dira, baita derrigorrezko lerrokadurak edo ezarriak eta gehienekoak bereizi ere. Ildo horri jarraiki, etorkizuneko eraikinak partzelaren barrurantz atzeraeman daitezke, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

2. Lerrokaduren bidez edozein plantatan eraikuntzaren forma definitzen da, bai sestraren azpian, bai horren gainean, baita solairurik altuenetan ere, atzeraemanak baimendu edo derrigortzen baitira.

17. ART. ERAIKUNTZAREN LERROKADURAK. MOTAK ETA DEFINIZIOAK

1. Eraikuntzen forma definitzeko, eraikuntzaren lerrokadura-mota hauek zehazten dira:

- a) Derrigorrezko lerrokadura sestraren gainean
- b) Gehieneko lerrokadura sestraren gainean
- c) Gehieneko lerrokadura azkeneko solairuan (eraikinaren altuenean)
- d) Gehieneko okupazioa sestraren azpian

2. *“Antolamendu xehatua, eraikuntzaren lerrokadurak eta altuera”* O.3 planoan aipatutakoak derrigorrezkoak izango dira.

3. Sestraren gainean derrigorrezko lerrokadura marra jarraituz irudikatzen da eta solairu guztietan, eraikinaren azkenekoan izan ezik, fatxadak hartu behar duen derrigorrezko lerroa definitzen du, Durangoko Arau Subsidiarioek baimendutako irtenak alde batera utzi gabe.

4. Sestraren gainean gehieneko lerrokadura marra etenez irudikatzen da eta eraikin berriei dagokienez, plano horizontalean beheko solairuen eta solairu altuen proiektzioak sartu behar diren lerroa definitzen du.

5. Azkeneko solairuan gehieneko lerrokadura marraz eta puntuak txandakatzen dituen lerroz irudikatzen da eta plano horizontalean eraikinen azken solairuen proiektzioak sartu behar diren lerroa definitzen du.

Lerrokadura hau beste solairuetako fatxada-lerrokadurarekin bat badator, irudikatzen duen marra bestearekiko paraleloan marraztu da, dokumentazio grafikoa hobe ulertzeko.

6. Ekipo komunitario publikoaren eraikinari dagokion gehieneko lerrokadurak muga guztietan gutxienez 10 metroko distantzia errespetatuko du. Finka pribatuekin muga egiten duen fatxadan, gainera, gutxienez fatxadaren altueraren erdiari dagokion distantzia errespetatuko da.

7. Sestraren azpian solairuen gehieneko eraikuntza-okupazioa **O.3** planoan marraztutako azalera marraztuak definitzen du.

18. ART. ERAIKINEN SOLAIRU-KOPURUA

1. **O.3** planoan eraikin bakoitzaren gehieneko solairu-kopurua adierazten da eta beheko solairua horren gainean eraikitako solairuetatik bereizten da.

2.- Sotoan gehienez bi solairu egingo dira etxebizitza libreen eta erregimen tasatuan etxebizitza babestuen eraikinetan eta hiru babes ofizialeko etxebizitzetan eraikinean.

19. ART. BOLUMENA SESTRAREN AZPIAN

1. Sestraren azpian sestraren gainean erabilera publikoaren zorrak baldintzatzen dituen espazio guztiak ezin daitezke azalera inolako puntutan. Hala, forjaketaren goiko alde gutxienez Urbanizazio Proiektuan aurrez ikusitako sestraren azpitik 40 cm-ko sakonerara geldituko da.

20. ART. PARTZELA PRIBATUEN ITXITURAK DISEINATZEA

1. Partzela bakoitzaren Eraikuntza Proiektuak zehatz-mehatz definitu beharko ditu lurzoru eta erabilera pribatuko aspizonekin partzelen itxituraren sekzioa eta diseinua. Beheko solairuan etxebizitza dagoenean horiek derrigorrezkoak izango dira. Jabari publikoarekiko partzela-itxituraren kanpoko alde partzela pribatuaren lerrokadurekin bat etorriko da.

2. Itxituren diseinua definitzeko eta multzoaren hiri-itxura estetikoki onargarria dela zaintzeko, honako arauak kontuan hartuko dira:

a) Itxituraren beheko alde gutxienez 15 cm-ko lodiera duen hormarekin egingo da eta kanpoalderantz bistako lauza txikiz, harriz edo Udalak berariaz baimendutako edozein estalduraz estaliko da. Espaloiaren sestrarekiko altuera 20 eta 110 cm bitartekoa izango da. Ahal den neurrian, horma mailakatzea saihestuko da.

b) Partzela itxeko hormaren gailurreko mailaren eta beheko solairuko forjaketaren beheko aldearen artean maila-desberdintasuna badago, bitarteko espazioan landare-etzpona jarriko da eta azkenekoaren azpitik gehienez 40 cm-ra geldituko da.

c) Itxituraren goiko aldeko (eraikuntza aukerakoa) materialari dagokionez, heskaia erabiliko da; hala badagokio, errementaritzako itxitura saretua edo egurrezko piezak osagarri bezala erabili daitezke. Multzoak, beheko hormarekin, ezingo ditu 1,90 cm gainditu.

3. SEKZIOA ERABILERA-BALDINTZAK ERAIKUNTZAN

Durangoko Arau Subsidiarioen Araudi Urbanistikoaren V. Kapituluaren xedatutako definizioekin bat, Plan Bereziaren eremuan erabileretarako honako baldintzak zehazten dira:

21. ART. AZPIZONA PRIBATUETAN ERABILERA NAGUSIA

1. Erabilera nagusia eraikin kolektiboetan etxebizitzetarako erabilera izango da, Durangoko Arau Subsidiarioen Arau Urbanistikoak 1.5.39. artikuluan definitzen duen bezala.

22. ART. AZPIZONA PRIBATUETAN BAIMENDUTAKO ERABILERAK

1. Baimendutako erabilerak hiri-lurzoruan, etxadian, etxebizitzetarako zonetarako baimenduak izango dira, Durangoko Arau Subsidiarioek 2.4.5. artikuluan xedatutako definizioaren arabera. Halako erabileraren bat, etxebizitza-erabilerarekiko desberdina, derrigorrezkoa da ekipamendu komunitario pribaturako zonetan eta gainerako beheko solairuetara zabaldu ahal izango da.

23. ART. AZPIZONA PRIBATUETAN DEBEKATUTAKO ERABILERAK

Partzela pribatuetan, eraikuntzarik gabeko zonetan, edozein eraikuntza (markesinak, mahaia, barbakoak...) debekatuta dago.

24. ART. EKIPO KOMUNITARIO PUBLIKOAREN AZPIZONAN ERABILERA

1. Ekipamendu komunitarioaren zonan Durangoko Arau Subsidiarioek 1.5.32. artikuluan sartzen dituzten erabilera-kategoria guztiak baimenduak daude.

2. Eraikinak betetzen ez duen azalera edo partzela honen sestraren azpiko espazioa herri-bidean aparkalekuaren legezko estandarra osatzeko lurzoruen erreserba dira.

25. ART. EKIPO KOMUNITARIO PRIBATURAKO BEHEKO SOLAIRUETAN BALDINTZA ESTETIKOAK

1. Ekipo komunitario pribaturako badira, beheko solairuetako lokaletan fatxadaren estaldura kalitate oneko materialekin egingo da, hala nola egur, harri natural edo marmolarekin. Pinturak, estukoak, tirolesak edo antzekoak debekatuak daude.

4. SEKZIOA. ORAINGO ERAIKUNTZEN ETA ERABILEREN BALDINTZA BEREZIAK

26. ART. ORAINGO ERAIKUNTZEN BALDINTZA BEREZIAK

1. Oraingo eraikuntza guztiak, Plan Berezi honek antolatzen duen eremuaren azpizona publiko edo pribatuetan kokatzen badira, "antolamendutik kanpoko" araubidean geldituko dira.

2. Plan Berezi honek antolatutako eremuaren azpizona publiko edo pribatuetan garatzen ari diren erabilera edo jarduera guztiak "antolamendutik kanpoko" araubidean geldituko dira.

5. SEKZIOA PARTZELETAN ERAIKIGARRITASUNA ZEHAZTEA

27. ART. ALDERDI OROKORRAK

1. Birpartzelazioaren Proiektuak **O.3** planoan definitutako partzeletan sestraren gainean zehaztutako eraikigarritasun urbanistikoa errespetatu beharko du. Hala eta guztiz ere, etxebizitza libreetara bideratutako partzeletan eraikigarritasuna 300 m² arte batetik bestera aldatzen utziko da, betiere horien ondoriozko eraikigarritasunak proiektuan behin betiko islatzen badira.

28. ART. ERAIKIGARRITASUNA NEURTZEKO MODUA

1. Eraikigarritasun urbanistikoa Durangoko Arau Subsidiarioek xedatutakoarekin bat neurtu behar da.

2. Ondoren, koadroak azalduko ditugu hurrengo datuekin: partzela-mota, etxebizitzetarako azpizonen kasuan, gutxi gorabeherako etxebizitzaren kopurua, eraikineko etxebizitzaren kopurua, sestraren gainean gehieneko eraikigarritasun urbanistikoa etxebizitzetarako eta beste erabileretakoak zehaztuz eta sestraren azpian gehieneko okupazioa. Eraikinen eraikigarritasuna gutxi gorabeherakoa da eta partzela zatitzen bada, Birpartzelazio Proiektuan behin betiko finkatuko da; bestela, Eraikuntza Proiektuan egingo da.

29. ART. ETXEBIZITZA KOLEKTIBO LIBREEN AZPIZONAN ERAIKIGARRITASUNAK

ETXEBIZITZA LIBREA							
PARTZELA	ERAIKINA	SOLAIRUEN KOPURUA	SESTRAREN GAINEAN ERAIKIGARRITASUN URBANISTIKOA (m²)		GUTXI GORABEHERAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA	GEHIENEO OKUPAZIOA SESTRAREN AZPIAN (m²)	GEHIENEO AZALERA SESTRAREN AZPIAN
			ETXEBIZITZA	EKIPAMENDU KOMUNITARIOA BS-N			
P1	1	B+5	5.000,00		54	1.416,51	2.833,02
P2			14.246,79		152	5.873,20	11.746,40
	2a	B+5	5.100,00		54		
	2b	B+5, B+6 eta B+7	6.331,99		68		
	2c	B+5	2.814,80		30		
P3			7.555,00		82	2.616,37	5.232,74
	3a	B+7	2.575,00		28		
	3b	B+5	4.980,00		54		

GUZTIZKO PARTZIALA**26.801,79****288****19.812,16****30. ART. ERREGIMEN TASATUKO BABES-ETXEBIZITZEN AZPIZONAN ERAIKIGARRITASUNAK**

ERREGIMEN TASATUAN BABES-ETXEBIZITZA							
PARTZELA	ERAIKINA	SOLAIRUEN KOPURUA	SESTRAREN GAINEAN ERAIKIGARRITASUN URBANISTIKOA (m²)		GUTXI GORABEHERAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA	GEHIENEO OKUPAZIOA SESTRAREN AZPIAN (M²)	GEHIENEO AZALERA SESTRAREN AZPIAN
			ETXEBIZITZA	EKIPAMENDU KOMUNITARIOA BS-N			
P4			8.933,93	900,00	88	3.248,80	6.497,60
	4a	B+5	4.900,00	450,00	48		
	4b	B+4	4.033,93	450,00	40		

GUZTIZKO PARTZIALA**8.933,93****900,00****88****6.497,60**

31. ART. ERREGIMEN BABESTUKO ETXEBIZITZEN AZPIZONAN ERAIKIGARRITASUNAK**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA**

PARTZELA	ERAIKINA	SOLAIRUEN KOPURUA	SESTRAREN GAINEAN ERAIKIGARRITASUN URBANISTIKOA (m²)		GUTXI GORABEHERAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA	GEHIENEO OKUPAZIOA SESTRAREN AZPIAN (M²)	GEHIENEO AZALERA SESTRAREN AZPIAN
			ETXEBIZITZA	EKIPAMENDU KOMUNITARIOA BS-N			
P5			8.933,93	300,00	90	2.037,00	6.111,00
	5	B+5	8.933,93	300,00	90		

**GUZTIZKO
PARTZIALA****8.933,93****900,00****90****6.111,00****32. ART. EKIPO KOMUNITARIOAREN ERAIKIGARRITASUN FISIKOA****EKIPO KOMUNITARIOAREN AZPIZONA**

PARTZELA	SOLAIRU-KOP- - ALTUERA	SESTRAREN GAINEAN ERAIKIGARRITASUN URBANISTIKOA (m²)	GEHIENEO OKUPAZIOA SESTRAREN AZPIAN (M²)	GEHIENEO AZALERA SESTRAREN AZPIAN
SZEC		7.924,35	5.282,90	10.565,80

Bilbon, 2011ko otsailean

Arantza Ruiz de Velasco Artaza



**ANTOLAKETAREN NORABIDEAK ETA BURUTZAPENAREN KUDAKETA /
DIRECTRICES DE ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN DE LA EJECUCIÓN**

**DURANGOKO "P.E.R.I. 2 SAN FAUSTO" EREMUAREN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA
PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL ÁMBITO "P.E.R.I. 2 SAN FAUSTO" EN DURANGO**

APROBACIÓN DEFINITIVA
BEHIN BETIKO ONESPENA

SITUACION	KOKAPENA	SUELO URBANO, DURANGO / HIRI LURZORUA, DURANGO
PROMOTOR	ERAGILEA	VIVIENDAS DE VIZCAYA
FECHA	DATA	SEPTIEMBRE 2011 / 2011KO IRAILA
ARQUITECTA	ARKITEKTOA	ARANTZA RUIZ DE VELASCO ARTAZA
ARQ.COLABORADORES	ARK. LANKIDEAK	A. UNCILLA - O. UGARTE - J. DE EGUILEOR

C

DOCUMENTO C: DIRECTRICES DE ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN DE LA EJECUCIÓN

C.1- TIPO DE ACTUACIÓN Y DESARROLLO DEL ÁMBITO

La Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo en su Título V “Ejecución de la Ordenación Urbanística” establece varios tipos de actuación para la ejecución de la ordenación. El desarrollo de este ámbito queda enmarcado dentro de las denominadas Actuaciones Integradas.

El presente Plan Especial de Ordenación Urbana propone que todo él forme una única Actuación Integrada, a desarrollar por tanto a través de un único Programa de Actuación Urbanizadora. A priori la Actuación Integrada constará de una sola Unidad de Ejecución.

El PAU, que se redactará paralela o posteriormente a la tramitación del presente Plan Especial, contendrá como mínimo lo establecido en los artículos 152 y ss. de la Ley, y se plasmará en un Documento que conste de:

- a) Memoria justificativa con expresión de la programación de la ejecución.
- b) Anteproyecto de Urbanización.
- c) Planos de información y de delimitación de la unidad de ejecución que comprende la Actuación.
- d) Plano parcelario y relación de titulares de los bienes y derechos objeto de la actuación.
- e) Estudio de viabilidad económica-financiera, con valoración de la totalidad de los bienes y derechos de la actuación.

C.2. SISTEMA DE ACTUACIÓN

El sistema de actuación previsto actualmente por las NNSS de Durango para la transformación urbanística del ámbito San Fausto es el de compensación, por lo que con la adaptación del planeamiento a la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo será el de concertación.

Sin perjuicio de que finalmente sea el Programa de Actuación Urbanizadora el instrumento que fije definitivamente el sistema de actuación, se mantiene como directriz para la futura gestión del ámbito el sistema propuesto en las NNSS.

C.3. CONSTITUCIÓN DE LA JUNTA DE CONCERTACIÓN, PROYECTOS DE REPARCELACIÓN Y URBANIZACIÓN

Una vez aprobado definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora los propietarios mayoritarios firmarán un convenio de ejecución urbanística para proseguir con la gestión del ámbito. A partir de ese momento se aprobarán los Estatutos que han de regular el funcionamiento de la Junta de Concertación, que una vez constituida encargará los Proyectos de Reparcelación y Urbanización.

En Bilbao, a septiembre de 2011

Arantza Ruiz de Velasco Artaza

C

C DOKUMENTUA: GAUZATZEKO ANTOLAKETA- ETA KUDEAKETA-GIDALERROAK

C.1- JARDUERA-MOTA ETA EREMUAREN GARAPENA

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, “Antolamendu Urbanistikoa Gauzatzea” izeneko V. Tituluan antolamendua gauzatzeko zenbait jardueramota xedatzen ditu. Eremu hau Jarduera Integratuen bitartez garatuko da.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honek guztiak Jarduera Integratu bakarra osatzea proposatzen du, beraz, Urbanizatzeko Jarduera Programa bakarraren bidez garatuko da. Hasieran behintzat, Jarduera Integratuak Egikaritze Unitate bat izango du.

UJP Plan Berezi hau izapidetzearekin batera edo ondoren idatziko da eta gutxienez Legeak 152. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa izango du. Dokumentu batean moldatuko da eta honakoak izango ditu:

- a) Justifikazio-txostena, egikaritze-programazioa azalduz.
- b) Urbanizazioaren aurreproiektua.
- c) Jarduera osatzen duen egikaritze-unitatearen informazio- eta mugaketa-planoak.
- d) Partzela-planoa eta jardueraren xede diren ondasun eta eskubideen titularren zerrenda.
- e) Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren ikerketa, jardueraren ondasun eta eskubide guztiak baloratuz.

C.2. JARDUERA-SISTEMA

Gaur egun San Fausto eremua urbanistikoki eraldatzeko Durangoko Arau Subsidiarioek aurrez ikusitako jarduera-sistema konpentsazioa da, beraz, planeamendua 2/2006 Legeari, ekainaren 30ekoari, Lurzoru eta Hirigintza buruzkoari, moldatuz gero, hitzarmena izango da.

Alde batera utzi gabe azkenean Urbanizatzeko Jarduera Programak behin betiko jarduera-sistema finkatzea, eremua etorkizunean kudeatzeko gidalerro bezala Arau Subsidiarioek proposatutako sistema mantentzen da.

C.3. HITZARMEN-BATZARRA ERATZEA, BIRPARTZELAZIO- ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAK

Urbanizatzeko Jarduera Programa behin betiko onartzen denean, gehiengoa duten jabeek egikaritze urbanistikoaren hitzarmena sinatuko dute, eremua kudeatzen jarraitzeko. Une horretatik aurrera, Hitzarmen Batzarraren funtzionamendua arautu behar duten Estatutuak onartuko dira eta eratzen denean, Birpartzelazio eta Urbanizazio Proiektuak eskatuko ditu.

Bilbon, 2011ko otsailean

Arantza Ruiz de Velasco Artaza

D

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINTZARIOARI BURUZKO AZTERLANA / ESTUDIO DE VIABILIDAD ECONÓMICO-FINANCIERA

DURANGOKO "P.E.R.I. 2 SAN FAUSTO" EREMUAREN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL ÁMBITO "P.E.R.I. 2 SAN FAUSTO" EN DURANGO

APROBACIÓN DEFINITIVA
BEHIN BETIKO ONESPENA

SITUACIÓN	KOKAPENA	SUELO URBANO, DURANGO / HIRI LURZORUA, DURANGO
PROMOTOR	ERAGILEA	VIVIENDAS DE VIZCAYA
FECHA	DATA	SEPTIEMBRE 2011 / 2011KO IRAILA
ARQUITECTA	ARKITEKTOA	ARANTZA RUIZ DE VELASCO ARTAZA
ARQ. COLABORADORES	ARK. LANKIDEAK	A. UNCILLA - O. UGARTE - J. DE EGUILGOR

D

DOCUMENTO D: ESTUDIO DE VIABILIDAD ECONÓMICO-FINANCIERA

Partiendo de la premisa de que el mercado inmobiliario admite la cantidad de oferta de vivienda propuesta por el Plan Especial, la viabilidad económica del ámbito vendría en principio determinada a fecha actual por el valor residual del suelo una vez sustraídos los costes de las obras de urbanización, los gastos de gestión y las indemnizaciones que correspondan en su momento.

Cabe, sin embargo, recordar, que la realidad hoy existente, lo es gracias a las fuertes inversiones de capital realizadas para trasladar las industrias operativas en el ámbito hasta hace poco tiempo. Estas industrias dejan tras de sí un lastre en forma de suelo potencialmente contaminado, cuya descontaminación, en su caso, no forma propiamente parte de los gastos de urbanización, pero que no se puede obviar a la hora de valorar la viabilidad económica del ámbito.

Siendo estos gastos absolutamente desconocidos en la medida en que no existe un estudio de calidad del suelo de las parcelas inventariadas, el valor residual del suelo debe ser lo suficientemente alto como garantizar que los propietarios responsables de su descontaminación puedan hacerlo sin entrar en números negativos, punto de inflexión de la viabilidad económica de la operación inmobiliaria.

A partir de los valores residuales de suelo urbanizado obtenidos para los diferentes usos ordenados en el ámbito y calculados para obtener los coeficientes de ponderación en la Memoria, obtendremos el valor residual de suelo urbanizado de todo el ámbito.

A continuación se desglosarán los gastos de urbanización del suelo y se verificará que cantidad resta para indemnizaciones por un lado y descontaminación del suelo por otro, teniendo en cuenta, que este último gasto solamente le es imputable a una parte de la propiedad. En función del resultado estimaremos la viabilidad del ámbito.

D.1- VALOR RESIDUAL DEL SUELO URBANIZADO

Como se ha comentado anteriormente el valor residual del suelo urbanizado del ámbito resulta de la suma de los valores residuales de suelo por cada uso multiplicados por la superficie construida del mismo.

	Edif urbanística	Coef pond	Edif ponderada
60% EDIF VL	26.801,79	1,00	26.801,79
20% EDIF VPO	8.933,93	0,34	3.004,33
20% EDIF VT	8.933,93	0,79	7.091,18
Local comercial	1.950,00	0,58	1.124,25
Garaje -1 VL	11.530,49	0,03	316,71
Garaje -2 VL	11.530,49	0,02	227,17
	69.680,63		38.338,27

Siendo el uso característico la vivienda libre y su valor residual del suelo, 663,95€, la totalidad del suelo del ámbito estaría valorada en 25.454.694,37 Euros.

D.2- COSTE DE EJECUCIÓN MATERIAL DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN Y DE LA IMPLANTACIÓN DE LOS SERVICIOS URBANOS

Para calcular el coste de ejecución de las obras de urbanización se ha realizado una medición global de las diferentes partidas que componen el mismo, al no estar todavía redactado el Proyecto de Urbanización.

Dentro del Plan Especial se han estimado dos Subzonas de dominio público a urbanizar con calidades diferentes. Sin perjuicio de lo que establezca el Proyecto de Urbanización a efectos del cálculo del coste unitario de cada partida se han contemplado las siguientes calidades:

Subzona Viaria: Comprende toda la vialidad compuesta por calzada y aceras bajo las cuales discurren todos los servicios urbanos, (saneamiento, abastecimiento, telefonía, electricidad...) incluido también el alumbrado y el mobiliario urbano. Estará terminada de manera similar al resto del municipio

Su coste unitario se ha estimado en 260€/m²

Subzona de Espacios Libres y Zonas Verdes: Comprende toda la plaza-parque interior de la manzana y la zona verde junto al bloque de VPO. En estas zonas se

urbanizarán amplias superficies con baldosa y es posible que también discurran algunos servicios urbanos, por lo que se ha elevado su coste unitario a 210€/m²

Con esta relación de precios y las superficies obtenidas como resultado de la ordenación pormenorizada prevista en el Plan Especial (SZViaria 17.380,32m² y SZEL 7.082,20m²) se obtiene el coste de las obras de urbanización del ámbito, que asciende a **6.006.145,20 Euros**.

A este coste de ejecución material habrá que añadirle el correspondiente a los costes de las gestiones y los diversos documentos técnicos a elaborar para alcanzar la transformación urbanística del ámbito (Plan Especial de Ordenación Urbana, Programa de Actuación urbanizadora, Proyectos de Reparcelación y de Urbanización, publicaciones, Registro...) Se han estimado estos costes en 280.000 € aproximadamente.

La suma de estos gastos asciende a la cifra de **6.286.145,20 Euros**.

D.3- VALOR RESIDUAL DEL SUELO SIN URBANIZAR

El valor residual del suelo producto de la diferencia entre el valor del suelo urbanizado y los gastos de urbanización es 19.168.549,17 Euros, a razón de 411,17€/m² de suelo bruto.

D.4. VIABILIDAD ECONÓMICA DEL ÁMBITO

Como se puede observar el valor residual del suelo sin urbanizar es alto y permite garantizar con un alto grado de fiabilidad que una vez descontadas las indemnizaciones que correspondan en el ámbito, la cifra restante permitirá descontaminar el suelo y recuperar la inversión realizada en su día para trasladar las industrias antaño existentes.

En base a lo expuesto, y con los datos de los que actualmente disponemos, valoramos el ámbito PERI 2- San Fausto como viable económicamente.

En Bilbao, a septiembre de 2011

Arantza Ruiz de Velasco Artaza, arquitecta

D

D DOKUMENTUA: BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN IKERKETA

Higiezin merkatuak Plan Bereziak proposatutako etxebizitzaren eskaintza onartzen duela kontuan hartuta, gaur egun eremuaren bideragarritasun ekonomikoa, hasieran, lurzoruaren hondar-balioak zehaztuko du, urbanizazio-obren kostuak, kudeaketa-gastuak eta bere garaian dagozkion kalte-ordainak kendu ostean.

Hala ere, gogorarazi behar da gaur egun hori errealitatea dela, duela gutxira arte eremuan zeuden industria operatiboak tokiz aldatzeko egindako kapital-inbertsio garrantzitsuari esker. Industria horiek poluituak izan daitezkeen lurzoruen moduan lasta handia uzten dute. Hala badagokio, garbitzea berez ez da urbanizazio-gastuen barruan sartzen, baina ezin daiteke bazter, eremuaren bideragarritasun ekonomikoa baloratzeko orduan.

Partzela inbentariatuetan lurzoruaren kalitateari buruzko azterlana ez dagoenez, gastuak erabat ezezagunak dira. Hala, lurzoruaren hondar-balioak garbitzez arduratu behar duten jabeek zenbaki negatiboetan sartu gabe egiten dutela bermatzeko nahikoa altua izan behar du, hori baita higiezinaren eragiketaren bideragarritasun ekonomikoari dagokion inflexio-puntua.

Eremuan antolatutako erabileretarako lortutako lurzoru urbanizatuaren hondar-balioetatik abiatuta eta txostenean haztaperen-koefizienteak lortzeko kalkulatuak, eremu osoan lurzoru urbanizatuaren hondar-balioa lortuko dugu.

Ondoren, lurzoruaren urbanizazio-gastuak banatuko dira eta, batetik, gainerako kalte-ordainak ordaintzeko eta, bestetik, lurzoru garbitzeko zenbatekoa egiaztatuko da, azkeneko gastua bakarrik jabetzaren zati bati egotzi behar zaiola kontuan hartuta. Emaitzaren arabera, eremuaren bideragarritasuna kalkulatu dugu.

D.1- LURZORU URBANIZATUAREN HONDAR-BALIOA

Arestian komentatu den bezala, eremuan lurzoru urbanizatuaren hondar-balioa erabilera bakoitzeko lurzoruaren hondar-balioak batuz eta bertan eraikitako azalera biderkatuz lortzen da.

	Eraikuntza urbanistikoa	Hazt.-koef.	Eraik. haztatua
% 60 EL ERAIK.	26.801,79	1,00	26.801,79
% 20 BOE ERAIK.	8.933,93	0,34	3.004,33
% 20 ET ERAIK.	8.933,93	0,79	7.091,18
Merkataritza-lokala	1.950,00	0,58	1.124,25
EL garajea -1	11.530,49	0,03	316,71
EL garajea -2	11.530,49	0,02	227,17

	69.680,63		38.338,27
--	------------------	--	------------------

Erabilera karakteristikoa etxebizitza librea eta lurzoruaren hondar-balioa 663,95 € direnez, eremuaren lurzoru osoa 25.454.694,37 euron baloratuko litzateke.

D.2- URBANIZAZIO-OBREI ETA HIRI-ZERBITZUAK EZARTZEKOEI DAGOKIEN GAUZATZE-KOSTU MATERIALA

Urbanizazio obren egikaritze-kostua kalkulatzeko, osatzen duten sailak orokorrean neurtu dira, Urbanizazio Proiektua oraindik idatzia ez baitago.

Plan Bereziaren barruan kalitate desberdinekin urbanizatzeko jabari publikoaren bi azpizona kontuan hartu dira. Sail bakoitzaren kostu unitarioa kalkulatzeko Urbanizazio Proiektuak xedatutakoa alde batera utzi gabe, honako kalitateak aurrez ikusi dira:

Bideen azpizona: galtzadak eta espaloiek osatutako bide guztiak sartzen dira eta horien azpitik hiri-zerbitzu guztiak (saneamendua, hornidura, telefonia, elektrizitatea...) doaz. Halaber, argiztapena eta hiri-altzariak sartu dira. Udalerrian dagoen antzera amaituko da.

Kostu unitarioa honakoa da: 260 €/m²

Espazio libreen eta berdeguneen azpizona: etxadiaren barruko plaza-parke guztia eta BOEen blokearen ondoko berdegunea sartzen dira. Zona hauetan azalera zabalak baldosekin urbanizatuko dira eta baliteke zenbait hiri-zerbitzu joatea, beraz, koste unitarioa hurrengoa izango da: 210 €/m²

Prezio hauekin eta Plan Bereziak aurrez ikusitako antolamendu xehatuaren ondorioz lortutako azalerarekin (SZBidea 17.380,32 m² eta SZTE 7.082,20 m²) eremuan urbanizazio-obren kostua lortzen da eta **6.006.145,20 eurokoa da**.

Egikaritze materialaren kostu horri kudeaketari eta eremuaren eraldaketa urbanistikoa lortzeko egin behar diren dokumentu teknikoei (Hiri Antolamenduko Plan Berezia, Urbanizatzeko Jarduera Programa, Birpartzelazio eta Urbanizazio Proiektuak, argitalpenak, erregistroak...) dagozkien kostuak erantsi beharko zaizkio. Kostu horiek gutxi gorabehera 280.000 € izan daitezkeela kalkulatu da.

Gastu horien batura **6.286.145,20 eurora** iristen da.

D.3- URBANIZATU GABEKO LURZORUAREN HONDAR-BALIOA

Lurzoruaren hondar-balioa lurzoru urbanizatuaren balioaren eta urbanizazio gastuen arteko diferentziaren ondorioz 19.168.549,17 eurokoa da, hau da, 411,17 €/m² lurzoru gordin.

D.4. EREMUAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Ikus daitekeenez, urbanizatu gabeko lurzoruaren hondar-balioa altua da eta fidagarritasun-maila altuarekin eremuan dagozkion kalte-ordainak kendu ostean, gainerako zenbatekoak lurzoru garbitu eta bere egunean lehen zeuden enpresak tokiz aldatzeko egindako inbertsioak berreskuratzeko aukera bermatzen du.

Azaldutakoaren babesean, gaur egun ditugun datuekin, San Fausto 2. BEPB eremua ekonomiaren ikuspegitik bideragarria delakoan gaude.

Bilbon, 2011ko otsailean

Arantza Ruiz de Velasco Artaza, arkitektoa